

2015ean omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Bernardo Atxagaren Xolaren abenturen ingelesezko edizioak Marsh saria irabazi du

Bernardo Atxagaren Xola txakurraren abenturen ingelesezko edizioak (*The Adventures of Shola*, Pushkin, 2013) Marsh saria irabazi zuen 2015ean, itzulitako haur eta gazte literaturaren alorrean. Atxagaren ingelesezko argitalpen guztietan bezala, Margaret Jull Costa izan da itzultzailea. Marrazkiak Mikel Valverderenak dira, Euskal Herriko edizioan bezala.

Marsh Sariak aurreko bi urteetan ingelesera egindako itzulpen-lanik onena saritzen du, haur eta gazte literaturaren alorrean. 2015eko edizioan, sei finalista izan ziren; horien artean, Xola txakurraren abenturak kontatzen dituen liburua aukeratu zuen epaimahaik, urtarrilaren 22an jakinarazi zuenez.

Euskaraz, lau dira Xola txakurraren abenturak bildu dituzten liburuak: *Xolak badu lehoien berri* (1995, Erein); *Xola eta basurdeak* (1996, Erein); *Xola eta Angelito* (2004, Erein), eta *Xola eta Ameriketako izeba* (2011, Erein). Ingelesez, liburu bakar batean batu eta argitaratu ziren, 2013an, *The Adventures of Shola* izenburupean.

Henrike Knörr-en omenezko liburua plazaratu du UPV/EHUk

2015. urte hasieran Henrike Knörr zenaren omenezko liburu bat argitaratu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak. *Eridenen du zerzax kontenta: Sail-*

kideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008) du izenburua eta EHUko Euskal Filologia Saileko hainbat kidek egindako hogeita hamabost artikulu biltzen ditu. Maria José Ezeizabarrena eta Ricardo Gómez izan ziren argitaratzaileak.

Liburuan bildutako artikuluek honako alorrak lantzen dituzte: filologia, dialektologia, literatura, onomastika, hizkuntzalaritza sinkroniko eta diakronikoa, hizkuntzalaritza aplikatua, konputazionala eta psikolinguistika. Henrike Knörren bibliografia ere jaso da.

Felipe Juaristik Espainiako Kritikaren Saria irabazi du, euskarazko poesia arloan

Felipe Juaristi idazle eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen 2015eko Espainiako Kritikaren Saria, euskarazko poesia arloan. *Piztutako etxea* liburua-gatik jaso zuen saria.

Piztutako etxea Erein argitaletxeak eman zuen argitara, 2014an. Honela zioen Juaristik berak, argitaletxearen webgunean: «Piztutako etxea nire lanik sakonena da. Gogoeta egiten dut, esperantzaz, izuaz, desiraz, maitasunaz eta pasioaz, besteak beste. Abiapuntua da bizitzak bere arauak dauzkala eta, seguru asko, ez ditugula sekula santan guztiak ezagutuko, bizi garen bitartean bizitzaz ez beste ezertaz arduratzen garelako».

Bestalde, Unai Elorriagaren *Iazko hezurrak* (Susa, 2014) euskarazko narritabaren atalean saritu zuten.

Sariok Espainiako Literatura Kritikarien Elkarteak ematen ditu.

Bernardo Atxagak QIA saria jaso du Italian

Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzainak Quaderni Ibero Americani aldizkariak ematen duen 2015eko QIA saria jaso zuen Italian, bere jardun literarioarengatik. Ekainaren 4an eman zioten, Erroman izandako ekitaldi batean.

Saria jasotzeaz gain, Erroman izan zen bitartean hainbat ekitalditan parte hartu zuen. Hala, ekainaren 5ean, beste hainbat idazlerekin batera, irakurketa publiko batean izan zen.

Joan Mari Torrealdairi 2015eko Manuel Lekuona saria eman diote

Joan Mari Torrealdai idazle, kazetari, soziologo eta euskaltzain osoari eman zioten Eusko Ikaskuntzaren 2015eko Manuel Lekuona saria.

Epaimahaiak euskararen eta euskal kulturaren alde egin duen lana goretzi zuen, gizarteari egin dion ekarpena «erreferentea» eta «eredugarria» dela nabarmenduz. Torrealdairen hautagaitza Euskaltzaindiak aurkeztu zuen eta, besteren artean, «euskararen eta euskal kulturaren alde hainbat proiektu, ekimen eta plataforma, sortzeko, lideratzeko eta etengabeko lanaren bitartez sostengatzeko bizi osoan egindako lan mardula» kontuan hartu zuen Akademiak.

Erabakia irailaren 28an jakinarazi zuen Eusko Ikaskuntzak. Besteren artean, Torrealdairen kultur ekoizpena goratu zuen epaimahaiak, eta bere curriculumak sariaren filosofiarekin bat egiten duela nabarmendu zuen: «Manuel Lekuonaren kezka ez zen bakarrik izan euskara eta euskal kultura ikertzea, baizik eta biziartzea, hau da, gizartean merezi duten lekua ematea, eta horrekin bat egiten du Torrealdaiak».

Iratzeder poeta omendu dute Donibane Lohizunen

Urriaren 3an Donibane Lohizuneko Kultura Zerbitzuaren eta Euskal Kultur Erakundearen ekimenez, Jean Diharce «Iratzeder» poeta eta euskaltzaina omendu zuten Donibane Lohizunen. Ekitaldian Jean Louis Davant euskaltzainak «Iratzeder poeta» hitzaldia eman zuen.

Omenaldian, Iratzederren inguruko olerki liburua aurkeztu zuten. Ondoren, Diabolo taldeak, Ikastolako, St Thomas d'Aquin eta Dona Maria kolegioetako ikasleek Iratzederren olerkien irakurketa eta kantua eskaini

zituzten. Amaieran, Peyuco Duhart Donibane Lohizuneko auzapezak eta Iratzeder zenaren arrebak Iratzederren omenezko plaka bistaratu zuten Paul Jovet baratze botanikoan.

Joxe Azurmendiren *Historia, arraza, nazioa* liburuari eman diote Saiakeraren Euskadi Saria

Joxe Azurmendi filosofo, idazle eta ohorezko euskaltzainak irabazi zuen euskarazko saiakeraren 2015eko Euskadi Saria *Historia, arraza, nazioa* liburuagatik. Lan horretan nazioaren kontzeptu alemaniarren eta frantse-saren nondik norakoa aztertu du Azurmendik. Bereziki, Ernest Renan pentsalari bretoiaren idatziak arakatu ditu, baita XIX. mendeko intelektual frantses eta alemanen arteko polemikak ere. Elkar argialetxeak eman zuen argitara.

Epaimahaiak esan zuenez, «beste Europa bat pentsatzeko atea zabaltzen digu liburuak: obraren dokumentazio lan sakonak biziki aberasten du nazionalismoaren inguruko egungo gogoeta, eta sarritan falta zaion berme akademikoa ekartzen dio».

Juan Garziak irabazi du Itzulpengintzako Euskadi Saria *Sonetoak lanarekin*

Juan Garzia idazle, itzultzaile eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen Itzulpengintzako Euskadi Literatura Saria 2015ean, William Shakespeareren *Sonetoak* euskaratzeagatik. Liburua bi CDrekin batera argitaratu zen, Aztarna argialetxearen eskutik, Mikel Laboa Katedrak bultzaturik.

Juan Garziak itzulitako 154 sonetoez gain, kaleratu zen lanak bestelako ekarpenak biltzen zituen: Joxan Goikoetxea musikariak kanta bihurtu zituen sonetoetariko batzuk, eta euskal kantari multzo ezagun batek jarri zien ahotsa, Goikoetxearen beraren musika moldaeraz eta haren gidaritzapean. Bestalde, Koldobika Jauregi artista arduratu zen liburu-diskoaren alderdi plastikoaz.

Nafarroako Urrezko domina Jimeno Juriori

Jose Maria Jimeno Jurio historiagile, idazle, etnografo eta ohorezko euskaltzainari hil ondorengo Nafarroako Urrezko Domina eman zion Nafarroako Gobernuak 2015ean, «haren lan historiko, etnografiko eta toponimi-koen bidez Nafarroako kulturari egindako ekarpenagatik». Horrela adierazi zuen Foru Gobernuak urriaren 21ean onartutako foru dekretuan.

Folklorearen eta hizkuntzaren defentsan ere aritu zela azpimarratu zuen Nafarroako Gobernuak. Oro har, Jimeno Jurio «intelektual ezohiko eta errepikaezina» izan zen.

Abenduaren 3an, Elena Aranguren alargunak eta Roldan Jimeno semeak jaso zuten saria, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko egoitzako klaustroan egindako ekitaldian.

Jimeno Jurio 2002ko urriaren 3an hil zen. Saria jaso ostean, Jose Maria Jimeno Jurioren senideek hitz egin zuten. Gizon xume baten moduan oroitu zuten -«ez zinen pertsona harroa, ez zenuen saririk nahi»- eta haren biografiaren berri eman zuten. Besteren artean, memoria historikoaren alorrean egin zuen lana ekarri zuten gogora: «Zure ikerketek emaitzak ematen jarraitzen dute, eta zenbait pertsonen beren senideak berreskuratu ahal izan dituzte zuk egindako lanari esker».

Ekitaldian, Andres Iñigo eta Sagrario Aleman euskaltzainak izan ziren.

Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena omendu du

Urriaren 30ean, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena hizkuntzalari, kultur-gile eta euskaltzaina omendu zuen, haren jaiotzaren mendeurrenean.

Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundian egin zen; amaieran, bi erakundeon izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Markel Olano ahaldun nagusiak Diputazioaren beiratearen irudia duen oroigarria eman zioten Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Honela dio: «Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendeurrenean. 2015-10-30».

Mikel Zalbide eta Joseba Lakarra euskaltzainak izan ziren Koldo Mitxelenak utzi digun ondare aberatsa aztertu zutenak. Zalbidek «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola» mintzaldia eman zuen eta Lakarrak «Koldo Mitxelena, euskalaria euskaltzaleen artean» izenekoa.

Hasierako hitzak Markel Olanorenak izan ziren eta ekitaldiari amaiera ematekoak Andres Urrutiarenak.

Ekitaldian zehar, Antton Valverde kantariak abesti batzuk interpretatu zituen. Antonio Valverde bere aitak egin zuen Mitxelenaren erretratuaren aurrean, pozik agertu zen: «Nire aita ere orain 100 urte jaio zen, eta Mitxelenarekin mila lekutan egon zen, eta mila gauza partekatu. Besteren artean, bere herriarekiko eta bere hizkuntzarekiko maitasuna».

Andres Urrutiak 2015eko Leizaola saria irabazi du

Andres Urrutia notario eta euskaltzainburuak eta David Mota ikertzaileak «Jesus Maria Leizaola 2015» saria irabazi zuten *ex aequo*.

Saria Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) sortu zuen 1990ean eta euskal autonomiarekin lotutako gaietako buruzko ikerketak egiten edota aztertzen dituzten ikertzaileen lanak sustatzea eta ezagutaraztea du xede.

Andres Urrutiak aurkeztutako lana honako hau da: «Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privados. Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea».

Saritutako beste lana, David Motaren «Un sueño americano. El Gobierno Vasco en el exilio y Estados Unidos (1937-1979)» da.

Argizaiola saria Jose Luis Lizundiari

Duela 50 urte Durangoko Azoka sortu zutenek jaso zuten 2015eko Argizaiola saria eta horietako bat izan zen Jose Luis Lizundia euskaltzain eme-

ritua. Bere izenean, Leiore alabak eta Joanes bilobak jaso zuten saria, abenduaren 5ean San Agustin Kulturgunean eginiko ekitaldian.

Jose Luis Lizundiarekin batera, honako hauek izan ziren omenduak: Rosario Astola -honek ere ez zuen joaterik izan-, Jesus Astigarraga, Koldo Alzibar, Leopoldo Zugaza, Carmen Miranda eta Arrate Salazar. Hauetaz gain, jada gure artean ez dauden gainerako Gerediagako sortzaileak ere gogoratu zituzten: Jesus Maria Astola, Bixente Kapanaga, Julian Berriozabalgoitia eta Salvador Solaegi. Guztiei, honela esan zien Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek: «Argizaiola zuentzat, sasoi ilunetan argia izan zinetelako».

Ekitaldian, Karrika Antzerki Taldeak Durangoko Azokaren historia laburbiltzen duen antzezlan bat eskaini zuen.

Joan Martí ohorezko euskaltzaina Tarragonako seme kutun izendatu dute

2015ean Joan Martí i Castell ohorezko euskaltzain katalana Tarragonako seme kutun izendatu zuten. Ekitaldi ofiziala abenduaren 21ean, San Tomas egunean, egin zen, Tarragonako Udaletxeko batzar aretoan.

Martí Tarragonan jaio zen, 1945ean. Bartzelonako Unibertsitateko eta Erromako La Sapienzako Unibertsitateko doktorea (Filologia Erromaniakoan eta Lingue e Letterature Staniere-an, hurrenez hurren). Hizkuntzalari-tza Diakronikoan, Hizkuntzen Historia Sozialean eta Soziolinguistikan eta Lexikografian aditua.

Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitatearen sortzailea, bertako lehen errektorea izan zen, eta baita Filologia Katalanaren saileko zuzendaria ere. Kataluniako eta Italiako beste hainbat unibertsitatetan ere irakasle aritu da.

Institut d'Estudis Catalans-eko kide osoa da, eta 2002tik 2010era bertako Secció Filològicako burua izan zen. 30 liburu baino gehiago argitaratu ditu, katalan hizkuntzaren historia, gramatika eta erabilerari buruz, eta baita artikulu ugari ere. Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Pri-*

mitiae liburua katalanera itzuli du (2013ko abenduan, Eusko legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak aurkeztua).

Hainbat sari jaso du, besteren artean Tarragona Hiriko domina, eta hiri bereko Rovira i Virgili Unibertsitatearena ere. 2014an ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.